

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/024

Izenburua: ASTIALDIAREN GIZARTE INSTITUTUA

Datak: 1979-1986

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 18 instalazio unitate

Sortzailea: ASTIALDIAREN GIZARTE INSTITUTUA

Erakundearen historia:

Ekainaren 2ko 31/1977 Errege Lege Dekretuaren bidez derrigorrezko sindikatzea azkentzean eta egitura sindikalak aldatzean, eginkizunak eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazioari. Juridikoki, apirilaren 14ko 906/1978 Errege Dekretuan gauzatu zen hori, zeinaren 1 l) artikulua arabera Lan Ministerioari eskualdatu baitzitzaion Hezkuntza eta Atsedeneko obra sindikala. Haren ondarea gal eta honda ez zedin, Astialdiaren Gizarte Institutua erakunde autonomoa sortu zen Lan Ministerioaren barruan, nortasun juridikoa eta ondare propioa zituena, otsailaren 20ko 691/1979 Errege Dekretuaren bidez (1979ko apirilaren 3ko BOE).

Astialdiaren Gizarte Institutuaren eginkizuna zen Hezkuntza eta Atsedeneko obra sindikaletik zetozen langileei zuzendutako zentroak eta jarduerak kudeatzea.

Gobernu organo hauek zituen:

- Zuzendaritza Kontseilua.
- Zuzendaria.
- Probintzia Gerentziak.

Probintzia gerenteari zegokion institutuaren programak garatzea eta gauzatzea, bere lurralde eremuan.

Abenduaren 18ko 2966/1981 Errege Dekretuaren bidez —Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren zenbait organo berregituratzen eta ezabatzen dituen—, ezabatu egin zen Institutua.

Apirilaren 11ko 923/1986 Errege Dekretuaren bidez, astialdiaren arloko Estatuaren zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zitzaizkion. Horren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak beteko zituen, bere lurralde eremuaren barruan, otsailaren 20ko 691/1979 Errege Dekretuaren 2. artikuluan aipatzen den Astialdiko Gizarte Institutu desagertuak —Hezkuntza eta Atsedeneko Obra Sindikaletik zetorrena— astialdiaren arloan betetzen zituen eginkizunak eta zerbitzuak.

Nafarroako Artxibo Garaikidean 14 dokumentazio kutxa daude, batez ere haren administrazio eginkizunei eta baliabide ekonomikoen eta langileen kudeaketari buruzkoak.

Funtsaren antolamendua:

024.01 GOBERNUA

024.01.01 Eskumenen eskualdaketa

024.02 ADMINISTRAZIOA

024.02.01 Lan bilerak

024.02.02 Korrespondentzia

024.02.03 Txostenak

024.03 GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA

024.03.01 Langileen espedienteak

024.04 BALIABIDE EKONOMIKOEN KUDEAKETA

024.04.01 Kontabilitate arloko espedienteak

024.05 TURISMO SOZIALAREN SUSTAPENA

024.05.01 Egoitzen programa

024.06 INSTALAZIOEN ETA EGOITZEN KUDEAKETA

24.06.01 Instalazioen eraikuntza eta mantentze-lanak

Sarrera baldintzak:

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa eskuratzeko epea ezartzen ez duen bitartean, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.